


PROBLEMAK 4


IZENA:..... MAILA:.....

1.- ____ €ko jokia erosi nahi dut, baina bakarrik ____ € ditut. Astero ____ € aurrez ditzaket, zenbat denbora barru erosi ahal izango dut jokia?. **Datuak: 5, 60, 120.** Osatu eta ebatzi.

2.-




Bi txanpon hauen atzealdean beste bi zenbaki daude izkutaturik. Txanponak botatzen baditut eta azaltzen diren zenbakien batuketa egiten badut, emaitza hauek lortu ahal ditut: **11,12,16 eta 17**. Inbestigatu zein den txanpon bakoitzak atzealdean duen zenbakia.



3.- Aztertu kartekin egin dugun 3 pisuko dorrea eta erantzun.


Zenbat karta beharko dugu 6 pisuko dorrea egiteko?

Gai izango zara arau bat sortzeko edozein altuerako dorreak behar dituen karta kopurua kalkulatzeko?



4.- Datorren astean txango bat egingo dugu eskolako ikasleak. 200 ikasle joango gara, eta 25 ikasle talde bakoitzarekin irakasle bat joan behar da. Autobus bakoitzean 70 bidari sartzen dira. Zenbat autobus beharko dugu?

5.- Amari bi opari egiteko 110 euro ordaindu dut. Opari batek besteak baino 100 euro gehiago balio du. Zenbat balio du bakoitzak?



6.- Artzain batek beste bati zera esaten dio:

- Emaidazu ardi bat eta kopuru bera izango dugu.

- Ez, emaidazu zuk niri bat eta horrela nik zuk daukazuaren bikoitza edukiko dut.

Zenbat ardi dauka bakoitzak?

7.- Jokoa: binaka jarrita, hurrengo orriaren fitxak moztu eta mahai gainean jarri txandaka banan banan hartzeko. Fitxen balioarekin 15 lortzen duen lehenengoak irabaziko du.

1

2

3

4

5

6

7

8

9